

BIHOTZ-BIHOTZEZ, NIRE OPARIA

Ibai ertzean nago, hankak zertxobait bustiak ditudalarik. Segunduro hemendik igarotzen den ur gardenak ilargi betea islatzen du, kraterren kalitatea zein den ikus dezakedalarik. Otsoaren oihuak apurtu du ilargia eta nire arteko komunikazio isila, nire begi hipnotizatuen eta ilargiaren itxuraren arteko komunikazioa. Bera dagoen lekura joan behar dudala ohartarazi dit, gabonetarako zein opari nahi duen esan diezadan, zoriontsu egin nahi dut eta. Zoriontsua bilakatu nahi dut urte hauetako gorroto guztia desagertuz eta behar baldin bada ere bere pentsamendu guztiak ezabatuz, hori baino gehiago merezi baitu. Beregana iristen naizen bakoitzean besarkada handi batek agurtzen du nire gorputz zurbila, askotan bustia eta nekatua. Jaten ematen dit, baita edaten ere, eta ni ohera joan arte esna egoten ohitua dago logurari aurre egiten aspaldidanik ikasi zuelarik.

Eguna argitzen duen eguzkiari esker jakin izaten dut hemen dagoela, nire ondoan beti bezala. Bere edertasuna ulergaitza da... hain da ederra bera... urteak dira nire iritzia hori zela baina berdin jarraitzen du nire pentsamendu kritikatzailak.

Begi berde distiratsuek negar bizian hastera doazela dirudite. Nire begietan barneratzen dira, nik esan nahi dudana ulertu nahian, baina uste dut alferrikakoa dela. Nire saiakera guztiek porrot egiten dute, nekatua nago...

Ile marroi kizkurraren dantzaldiak ikustean, elizaren bibliak dionean finkatuz, aingeru zurien dantzaldi berezi horietako baten partaide naizela irudikatzen dut. Bibliaren esaldiak ez datoz bat nire pentsamendu eroekin. Dударik gabe, nahiago ditut nire pentsamenduak, soilik nireak direnak, eta ez bibliak dioena, mundu honetako gizaki gehienek sinisten dutena.

Bere ezpain eztitsuak musukatzeko erregutzen ari zaizkidala iruditzen zaidan bakoitzean gorroto dut hori ezin egitea...gorroto dut... Bera niregana etorriko balitz...gutxienez bere esku leunekin, umiltasun osoz, nire aurpegia ukituko balidake...

Bere tititxoak laztantzeak zoratu egiten nau eta eskuei laguntza pixka bat egitearren mihi jolasgarriarekin hezetasunez blai uzten ditut, neure buruari gustukoa ote duen galdetuz. Baina...zergatik ezin da orainaldian bihurtu, iraganean izan zen bezala?

Nire logelaren erdian ikuspen paregabea izaten dut ia egunero. Bera bere logelara noiz sartuko zain egoten naiz, begiak zabal-zabalik edukitzearen ondorioz batzuetan lo hartzen dudalarik. Atea zabalik uzten duenez ispiluari esker bere aurpegi maitagarriaren tristezi itxura asko nabaritzen diot. Begi berde horiez arduratzen da gehienbat, bere sentimenduak bertan islatuko ote diren beldurrez. Bere azkazal luze horiek dotoretzeak denbora gutxi lapurtzen dio, ohitua baitago ekintza hori behin eta berriro errepikatzeaz. Baina bat-batean bere begiek nire begiradaren noraezaren berri jakitean atea ixtera jaikitzen da, barre keinu batez lagundurik, noski, niri zuzendua.

Zergatik itxi duzu atea? Ez dit inoiz erantzuten.

Agian, eguneroko errutina berberaz nazkaturik dagoelako, nork daki... berak bakarrik...

Gutxi falta zait bera dagoen lekura iristeko. Ene bada! Saguzarrek inguratu naute eta nik ezin korri egin. Nire iraganeko ahotsak ez du aukerarik osotasunean galdua izateko edota oihartzuna sortzeko. Hau da, hau tristezia! Berak etorri behar izan du niregana etxera joaten laguntzeko. Haurtzaroan nire amak horrelako erantzunak izaten zituen nik zerbaiten aurrean erantzun ezin nezakeenean. Baina orain zer? Ez ditut 5 urte. Dagoeneko heldua naiz eta ez naiz gai nire kabuz bizitzeko...

Pena ematen dit neure buruak.

Egongelaren erdian baina paretari itsatsia dagoen kanapean ipini nau, panpina dirudit. Ahoa josirik duen panpina, beste pertsona baten laguntzarekin mugitzeko gai ez den panpina, soilik begiek erakusten diotena interpretatzen dakien panpina naiz. Ezkerraldeko tximini zahar batetik etortzen den kea eta beroa nire begiek ezin dute jasan...

Baina nola esan berari?

Negar zotinak entzuten ditut, ezin ordea bere penak arindu...barkaidazu mesedez, hau guztia nire errua da eta...

Lasaitu da eta nire gorputzaren barnealdearen orain dela minutu batzuetako jabea (urduritasuna) apaldu egin da. Zure aho xarmangarri horretatik hitzak ateratzen hasi dira eta nire belarriek gustura entzuten dituzte. Suaren indarra gure begien menpe dago, ezin dugu ezer egin. Nik behintzat ezer ez naizelako eta zuk, jada begirada nire gainean duzulako.

Eta zurrumurru horiek? Berdin zaizula zein opari egin? Estualdi ederrean jarri nauzu maitea. Nik zoriontsu egin nahi zaitut, zoriontsu betirako, zuk nahi duzun edozer eman edo egiteko gai naiz, zure aurpegiaren tristezia zoriontasunean bihur dadin.

Ez, ez dut ohera joan nahi, joan zu lasai. Behingoagatik joan zaitez zu lasai, egin beharreko batzuk bete behar ditut eta. Baina...zertan nabil? Nire pentsamenduekin hizketan ala mamu txuri barregarri batekin? Berdin du, hondoak jota joan da ohera, ezin du gehiago. Zer egingo dut nik orain? Ez dut erdi kiskalirik oheratu nahi.

Zer egin dezaket ordu hauetan? Ohera joatea ezinezkoa egiten zait; izan ere, zer oparitu pentsatu behar dudalako eta ahalik eta azkarren oparitu, malenkoniaz beteriko bizitza honetatik irten dadin.

Presaka nabil. Utzi bidea libre saguzar zikinok! Inor baino gehiago zaretela uste al duzue? ...galdera hau egitea ere...,ni baino gehiago, ziur nago baietz. Utzi zuen hegaldi zoroak alde batera eta utzi gizajo honi, ezer ez den honi ibai ertzera joaten, ilargiak bestela alde egingo dio eta.

Ur korronte hotzak nahiz beroak sumatzen dituzte nire hankek. Igelak ere ageri izan dira noizbehinka. Haizearen norabidea segunduro aldatzen doa zuhaitz hostoak mugiarazten dituelarik.

Ezin naiz imajinatu zeinen goxo egongo zaren maindire azpian, ametsek mundu hobeago batera eramán zaituztelarik, ni ez nagoen mundu hobeago batera. Ametsean zu eta nire arteko maitasuna infinitua da, esperantzaz beterikoa, inolako oztoporik gabekoa. Hala izan zen iraganean, ni oraindik egoera honetan aurkitzen ez nintzenean. Ederki sufritu zenuen bai, ez didazu zertan esan beharrik, oso nabaria zen.

Barkatu...barkatu...barkatu...barkatu...

Nire pentsamenduak iparra galdu du, noraezean dabil baina lasai nago, nire maitea lasai dagoelako.

Ilargiari hitz egingo diot bere isla zure begietara iritsiko baita, nik berari esandako guztia zuregana iristeko:

Ilargiarekin nago zuri barkamena eskatu nahian, barkamena hemen nagoelako, nire gorputzaren beroa sentitu ezin duzulako, zurekin ez nagoelako.

Barnean sentitzen dut zureganako inpotentzia, nire sentimenduen isiltasun etengabea, usteko isiltasuna, baina barnean mugimenduan eta etengabean oihuka dauden sentimendu ukaezinak.

Bihotza sutan jartzen zait, milaka gradutara, amorrua eta nahia elkar joka dabiltzala, bitartean eurengandik ezer egin ez dezakedala. Bizirik jarraitzea alferrikakoa izan al zen?

Horrela izan bazen tristeziatzat eta inpotentziatzat blai jarriko nintzateke, ez baitakit zertarako, norentzako, zergatik egiten dudan eta sentitzen dudan, ez eta zer lortzen dudan sentimendu hauen joan-etorriekin ere.

Baina beti mutu geratzen da erantzuna, nire bihotzeko maitearen erantzuna, oihartzunik gabeko erantzuna, kanpora irten nahi ez duenarena.

Bihotzaren taupadak azkartu egiten dira sentimenduak jolasean daudenean, nahia gertu dagoela hausnartzean. Azkartu egiten dira...bai, baina taupada horien bizkortasunaren esanahia ez da edonork esperoko lukeena. Bihotza usteltzen ari zait, hain da amaigabea nire barnean dagoen maitasuna eta irten ezin daitekeen gorrotoa...

Hau da nire nahia, hitz hauen bitartez sentimenduak adieraztea, kanpora ateratzea. Baina trumoi baten soinuaren bidez bihotza noraezean dudala sentitzen dut eta tximistaren argiak erakutsiriko energiak amodio galdua tokatu zaiola ohartarazten dio, egokitu gabekoa.

Hau izango da seguruenik gauetan, gau luzeetan eta tristuraz beterikoetan lo egiten uzten ez nauena, ohean bueltaka mantentzen nauena, izerditan blai uzten nauena, bihotza zarataka kolpatzen duena.

Ez dakit zer esan, zer egin, nola esan, nola iritsi horretaraino eta bidean ez usteldu. Onuragarria izango al da ilargiak nire sentimenduen berri jakitea? Pentsatzearekin soilik begiak itxi egiten ditut, nahikoa dela izango delakoan...baina ez. Nire belarriek saguzarrek sorturiko uhinak jasotzen dituzte, sentimenduen berri eman nahian, guztiaz ahaztuko ote naizen beldurrez.

Ez da egunik zure zoriontasuna nire garunera etortzen ez zaidanik.

Maitea dut nik maite baina ni ez nau inork maite. Bakarrik sentitzen naiz, babestu beharrean aurkitzen naiz, baina beti nago bakarti eta goibel.

Barnean dago guztia, barnetik atera ezinik dabilela itotzen ari naizen bitartean, eta gorroto dut.

Ezindu batean bihurtzeak nire bizi itxaropena desagerrarazi zuen.

Inpotentziatzako hodei kondentsatu honetatik ezin jaitsi nabilerarik nire bideari aurrera egiteko moduaren zain nago eta aurkitu dut.

Gau ilun eta ilargi bete honetan heriotzan erortzeko itxaropenaz, amets onak izaten jarrai dezazun, nire bihotz galdua aske izateko nahian eta nire maiteari bizitzen utziko dion laguntzailearen zain...agurtzen naiz ibaiak ilargia islatzen duen lekura jaurtikitzen naizelarik.

Bihotz-bihotzez, nire oparia: suizidioa.